

Etorkizuneko hiritar arduratsuak heztea: Internetaren mehatxuak identifikatzea, babes-neurriak ezagutzea eta jarrera kritikoa garatzea eskolan

Rakel Gamito Gomez, Pilar Aristizabal Llorente, Mariate Vizcarra Morales

- (1) Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), rakel.gamito@ehu.eus
- (2) Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), p.aristizabal@ehu.eus
- (3) Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), mariate.bizkarra@ehu.eus

Laburpena. *Online testuinguru batean bizi gara eta, ondorioz, gaitasun digitala Europako oinarritzko zortzi gaitasunetako bat da. Egun EAEn dugun hezkuntza-curriculumak gaitasun digitala jasotzen du, baina ez du segurtasun-edukirik zehazten Lehen Hezkuntzako etapan. Horregatik, ikerlan honen helburua Internetaren erabilera segurua eta kritikoa lantzearen garrantziari buruzko kontzientzia piztea izan da eta, horretarako, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako formazio-ekintza baten esperientzia jaso eta baloratu da. Emaitzek adierazten dute, etorkizuneko hiritar arduratsuak hezteko, ezinbestekoa dela Lehen Hezkuntzako ikasleekin Internetaren arriskuak eta mehatxuak identifikatzea, babes- eta segurtasun-neurriak ezagutzeko eta jarrera kritikoa garatzeko.*

Hitz gakoak. *Internet, arriskuak, gaitasun digitala, DIGCOMP, Lehen Hezkuntza.*

Sarrera

Oso azkarra izan da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) eta, batez ere, Internetaren garapena (Rial, Gómez, Braña, eta Varela, 2014). Iraultza digitala deiturikoak aldaketa nabarmenak eragin ditu zenbait esparruetan; besteak beste, harremanetan, komunikazioan eta hezkuntzan.

Izan ere, teknologiaren erabilerak eskolaren paretak zeharkatu ditu eta moldatu ditu ikasteko zein irakasteko moduak (Caro eta Plaza, 2016). Hau da, kultura digitalak ikaskuntzaren ikuspegi eta eredu berrien beharra azaleratu du (Area eta Pessoa, 2011).

Baina IKTak onuragarriak izateko eta sarean modu autonomoan parte hartzeko, ezinbestekoa da erabilerari buruzko edukiak zein gaitasunak lantzea eta garatzea (Gamito, Aristizabal, Olasolo, eta Vizcarra, 2017). Horregatik, gaitasun digitala Europako Parlamentuak proposatutako zortzi oinarritzko gaitasunen artean kokatzen da. Dokumentuaren arabera,

gaitasun digitalak berekin ditu informazioaren gizartearen teknologien erabilera segurua eta kritikoa lanerako, aisialdirako eta komunikaziorako. IKT arloaren oinarritzko gaitasunen oinarriak honakoak dira: ordenagailuak erabiltzea informazioa lortzeko, ebaluatzeko, gordetzeko, sortzeko, aurkezteko eta trukatzeko, eta Internet bidez kolaborazio-sareetan komunikatzeko eta parte hartzeko (2006/962/CE:15).

Gainera, 2013an, DIGCOMP: A Framework for Developing and Understanding Digital Competence in Europe (Ferrari, 2013) txostena argitaratu zuen Europako Batzordeak. Dokumentua gaitasun digitalaren erreferentziazko markoa bilakatu da, gaitasunaren arloak eta deskriptoreak biltzen dituelako: informazioa eta informazio-alfabetatzea, komunikazioa eta lankidetzeta, eduki digitalak sortzea, segurtasuna eta arazoaren ebazpena (INTEF, 2017).

Gaur egun, Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) gaitasun digitala arautzen duena 2015eko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua da. Bertan, gaitasun digitala zehar-kompetentzia

bezala definitzen da, hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentziaren izenpean:

Oinarrizko Hezkuntza amaitu duen ikasleak kompetentzia digitala eta mediatikoa izan behar du, kompetentzia digitalaren arloko esparru europarraren ildoan, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetatze eta gaikuntza funtzional osoa bermatzeko (236/2015 D: 4).

Hala ere, dokumentuan oso orokorrak dira IKTen erabilera seguruari buruzko erreferentziak. Egun EAEko 10 eta 15 urte bitarteko nerabeen % 97,6 Internetaren ohiko erabiltzailea izan arren (INE, 2017), hezkuntza curriculumak ez du aurreikusten teknologiak dakartzan arriskuei zein mehatxuei buruzko prestakuntzarik 14-15 urte bete arte.

Ondorioz, azken urteetan areagotu da Internetaren erabilera seguru eta kritikoa eskola testuinguruetan lantzeko ardura zein sentsibilizazioa (Garaigordobil et al., 2015). Momentuko errealitate digitala aintzat hartuta, premiazkoa da Lehen Hezkuntzako geletan Internetaren erabilera autonomia eta arduratsua lantzeko espazioak egokitzea eta online bizikidetzari aurre egiteko baliabideak eskuratzeko aukerak eskaintzea (Gabarda, Orellana, eta Pérez, 2017). Bestela esanda, funtsezkoa da gaur egungo ikasleak offline zein online bizitzarako prestatzea.

Helburuak eta galderak

Ikerlan honen xede nagusia hauek izan dira:

1. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen Internetaren erabilera seguru eta kritikoa garatzea eta indartzea helburu duen ikerketa-ekintzaren diseinua, esperientzia eta balorazioa jasotzea.
2. Hezkuntza-komunitatean Internetaren erabilera seguru eta kritikoa lantzearen garrantziari buruzko kontzientzia piztea eta indartzea, eta Lehen Hezkuntzan segurtasun digitala lantzearen beharraz hausnartzea.

Hezkuntza-komunitatea aipatzen dugunean, ikasleak ardatz dira, noski, baina ezin ditugu irakasleak eta familiak ahaztu. Egungo irakasleak, digitalak dira? Internetari, segurtasunari edota adingabeen errealitate digitalari buruzko ezagutza dute? *DIGCOMP* markoak ezartzen dituen gaitasunak gelan lantzeko prestakuntza nahikoa dute? Bestalde, etxean ere, edo batez, denbora luzez egoten dira adingabeak konektatuta, zein da familiaren papera? Nola bermatzen dute familiek etxeko txikien segurtasuna? Familiek ikasleek gaitasun digitalaren bitartekari izan beharko lirateke? Nola?

Lanaren garapena

Lanaren abiapuntua Vitoria-Gasteizko ikastetxe publiko batek Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV/EHU) egindako laguntza-eskaera izan zen. Ikastetxeak, segurtasun digitalaren garrantziaz arduratuta, Lehen Hezkuntzako ikasleekin Internetaren arriskuak eta nortasun digitala landu nahi zituen, baina bertako irakasleek formazio falta zuten alorrean sakontzeko.

Formazio-saioak aurrera eramateko, ekintzan oinarritutako ikerketaren diseinua jarraitu da. Izan ere, saioen diseinua aldatu da esku-hartzea egin den bakoitzean, ikasleen beharretara eta interes-gune berrietara egokitzeko.

Azken finean, ikerketa-ekintza “[...] hezkuntza-praktikarekiko konpromiso moral eta etiko bat da” (Pérez, 2014: 151): curriculumaz arduratzen da eta hezkuntzaren egunerokotasuneko arazo edota ardura praktikoei erantzuna eman nahi die, betiere aztertzen duen errealitatea hobetuz.

Parte-hartzaileak

Ikerketa-ekintza hiru urtetan gauzatu da, 2015ean, 2016an eta 2017an hain zuzen. Hiru ikasturtetan, Vitoria-Gasteizko ikastetxe publiko bateko Lehen Hezkuntzako ikasleak izan dira formazio-saioen protagonistak.

Lehenengo urtean (2015) Lehen Hezkuntzako 5. mailako hiru taldek (n=69) eta 6. mailako lau taldek (n=84) parte hartu dute. Bigarrenengan (2016), esperientzia 5. mailako hiru taldeekin (n=67) errepikatu da. Eta, hirugarrenean, aldiz, 4. mailako hiru talde izan dira protagonista (n=71). Hau da, guztira hamahiru taldeetako 291 ikaslek parte hartu dute prozesuan.

Informazioa jasotzeko tresnak

Formazio-saioak martxan jarri diren bakoitzean, ikerkuntza-ekintza zein gertatutakoa narratu da eta ikasleen balorazio-iritzia jaso da. Horretarako, gertatutakoen landa-ohar etnografikoak jaso dira, saioak audioz grabatu dira eta ikasleek balorazio-galdetegi bat bete dute.

Prozedura

Burututako ikerketa-ekintzaren prozedura ziklikoa izan da, Lewin-ek (1946) proposatzen duen espiralarekin bat eginez: abiapuntua ikastetxeak egindako diagnostia eta arazoaren identifikazioa izan da, ondoren formazio-ekintzaren egitura diseinatu da, formazio-saioak martxan jarri dira, eta gertatukoari buruzko hausnarketa egin da, ekintza berregituratzeko.

Formazio-ekintza

Formazio-ekintzaren asmoa Internetaren erabilera segurua eta kritikoa garatzea eta indartzea izan da eta Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta egon da.

Hortaz, DIGCOMP markoa izan da formazio-saioen helburu, eduki eta ebaluazioaren oinarri eta proposamen pedagogikoak Internetaren arriskuak, pribatutasuna, nortasun digitala eta prebentzio-jarraibideak landu ditu, berrogeita bost minutuko hiru eskola-saioetan banatuta (1. taula).

1. taula. *Formazio-ekintzaren saioak eta edukiak.*

1. saioa: Pribatutasuna eta Internetaren arriskuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Sarearen arriskuak eta mehatxuak. ● Portaera desegokiak identifikatzeko estrategia aktiboak. ● Datu-pertsonalen babesa. ● Besteen pribatutasuna.
2. saioa: Nortasun digitala	<ul style="list-style-type: none"> ● Nortasun digitalaren kudeaketa. ● Norbere izen ona.
3. saioa: Babes- eta segurtasun-neurriak	<ul style="list-style-type: none"> ● Babes- eta segurtasun-neurriak. ● Ongizate fisiko eta psikologikoaren garrantzia.

Iturria: Egileek eginda.

Momentu oro, ikas-jarduerak jolas parte-hartzaile eta hausnarketa-prozesu kolaboratibo bezala aurkeztu dira gelan. Horrela, ikasleak izan dira formazio-saioen protagonista.

Ikerketa-ekintza martxan jarri da, lehenengoz, 2015eko otsaila eta martxoa bitartean, bigarrenengoz, 2016ko martxoan zehar eta, azkenekoz, 2017ko azaroa eta Abendua bitartean. Diseinatutako hiru saioak parte-hartzaile talde bakoitzarekin errepikatu dira eta saio batetik

bestera astebeteko tartea utzi da. Zikloak beti dimentsio berriak ekarri ditu eta diseinua hobetzeko zenbait gako bildu dira.

Emaitzak

Lehenengo saioan, ikasleek euren IKTen erabilera-ohiturak zerrendatu dituzte eta, horri esker, IKTek euren egunerokotasunean duten presentzia handiaz jabetu dira. Ondoren, taldeka, informazio pertsonala modu aktiboan babestearen garrantzia aztertu dute. Hala, galdetzen diegunean zeintzuk diren hobeto babestu beharreko datuak honako hauek zerrendatzen dituzte: pasahitza, etxeko helbidea eta telefono zenbakia, hurrenez hurren. Pasahitza bestelako datu pertsonalen babesarekin lotzen dute, “pasahitzarekin zure kontuan sartu daitezke eta zure informazio pertsonala ikusi edota lapurtu” (ikaslea, 2015, 1. saioa).

Era berean, lehenengo saioan Internetaren erabilera desegokiak eta horien ondorioak identifikatzeko estrategiak garatu dituzte. Zenbait egoera gatazkatsu deskribatu dira eta horiei buruz modu kolaboratiboan hausnartu dute, sarearen arriskuak zein mehatxuak identifikatu dituzte eta egoera bakoitzaren aurrean izan beharreko jokabidea edota erantzunak arrazoitu dituzte, “mezu desatseginak jasotzen baditugu, hoberena da gurasoei kontaktzea eta laguntza eskatzea” (ikaslea, 2016, 1. saioa). Gainera, loturak egin dituzte azal dutako egoera gatazkatsuen eta bestelako arrisku edota esperientzia pertsonalen artean.

Bigarren saioan proposatutako ikas-jarduerari esker, ikasleek nortasun digitalaren kontzeptua landu dute, gure bizitzan duen eraginari buruzko hausnarketa-jarrera indartuz, “guk argitaratzen dugunaz gain, besteek guri buruz jartzen dutena ere zaindu behar dugu” (ikaslea, 2016, 2. saioa). Hala, jabetu dira norberaren irudi digitala babestearen garrantziaz eta online testuinguruetan ere funtsezkoa dela besteen pribatutasuna errespetatzea.

Azkenik, hirugarren saioan, Internetaren erabilera arduratsua baloratu da. Kasu honetan, ezberdinak izan dira hausnarketa bideratzeko proposatutako ikas-jarduerak lehenengo aldian eta bigarrenengan edota hirugarrenean. Hala ere, hiruretan, IKTekiko jarrera kritikoa, erreflexiboa, arduratsua eta etikoa sustatu da eta ikasleek babes- eta segurtasun-neurriak sakondu eta barneratu dituzte, “garrantzitsua da Interneten seguru egoteko zer egin behar dugun ikastea” (ikaslea, 2017, 3. saioa).

Formazio-ekintzak helburuak bete ditu. Ikasleek formazio-ekintza interesgarria (% 87), ondo antolatua (% 65) eta dibertigarria (% 47) bezala definitu dute. Parte hartzaileen % 90,5k adierazi du saioetan Internetaren erabilera desegokiak dakartzan arriskuak, nortasun digitalaren eragina eta Internetaren erabilera segurua eta kritikoa bermatzeko prebentzio-jarraibideak ezagutu eta barneratu dituela, “gehien gustatu zaidana izan da asko ikasi dudala eta gutxien (saioek) 45 minutu iraun dutela” (Ikaslea, 2016ko balorazio-galdetegia).

Beti modu aktiboan eta gogotsu hartu dute parte. Gainera, ikasleek gaitasun kritikoa adierazi dute askotariko galdera, hausnarketa-adierazpenen zein ezagutza berrien ideien bitartez eta % 94,1k azpimarratu du beharrezkoa dela segurtasun digitala eskolan lantzea: “asko gustatu zait Interneterako aholkuak ikaskideekin batera ikastea” (ikaslea, 2017ko balorazio-galdetegia), “nik aldatuko nuke denbora (iraupena) edo saio gehiago” (ikaslea, 2015eko balorazio-galdetegia).

Ondorioak

Gero eta garrantzitsuagoa da ikastetxeen ikasketa-proiektuetan segurtasun digitalaren arloari lotutako helburuak eta edukiak txertatzea. Egungo adingabeak dagoeneko online testuinguruetako erabiltzaileak dira eta, ondorioz, funtsezkoa da, lehenbailehen, sarearen erabilera arduratsuari buruzko hausnarketa kritikoa garatzeko aukerak eskaintzea. Mundu digitaleko parte-hartzaile konprometituen hezi nahi baditugu, ezinbestekoa da Lehen Hezkuntzako geletan arlo digitalari buruzko ezagutza eta balore etikoak lantzea.

Erreferentziak

- 2006/962/CE, de 18 de diciembre de 2006, Recomendación del parlamento europeo y del consejo sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente. *Diario Oficial de la Unión Europea*, L394.
- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 9.
- Area, M., eta Pessoa, T. (2011). De lo sólido a lo líquido: las nuevas alfabetizaciones ante los cambios culturales de la Web 2.0. *Comunicar*, 38(19), 13-20. doi: doi.org/10.3916/C38-2012-02-01
- Caro, C., eta Plaza, J. (2016). Intervención educativa familiar y terapia sistémica en la adicción adolescente a internet: fundamentación teórica. *Revista Española de Orientación y Psicopedagogía*, 1(24), 99-113. doi:doi.org/10.5944/reop.vol.27.num.1.2016.17031
- Ferrari, A. (2013). *DIGCOMP: A Framework for Developing and Understanding Digital Competence in Europe*. Sevilla: Joint Research Centre. Institute for Prospective Technological Studies.
- Gabarda, S., Orellana, N., eta Pérez, A. (2017). La comunicación adolescente en el mundo virtual: una experiencia de investigación educativa. *Revista de Investigación Educativa*, 35(1), 251-267. doi: doi.org/10.6018/rie.35.1.251171
- Gamito, R., Aristizabal, P., Olasolo, M., eta Vizcarra, M.T (2017). La necesidad de trabajar los riesgos de internet en el aula. *Profesorado*, 2(21), 409-426.
- Garaigordobil, M., Martínez-Valderrey, V., Maganto, C., Bernarás, E., eta Jaureguizar, J. (2015). Efectos de Cyberprogram 2.0 en factores del desarrollo socioemocional. *Pensamiento Psicológico*, 1 (14), 33-47. doi: doi.org/10.11144/Javerianacali.PPSI14-1.ecfd
- INE, Instituto Nacional de Estadística (2017). *Encuesta sobre equipamiento y uso de tecnologías de información y comunicación en los hogares. Resultados año 2017*. <https://goo.gl/b7Nfj5>-tik berreskuratua.
- INTEF, Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación de Profesorado (2017). *Marco Común de Competencia Digital Docente*. <https://goo.gl/hBLB4k>-tik berreskuratua.
- Lewis, K. (1946). Action Research and Minority Problems. *Journal of Social issues*, 4(2), 34-46. doi: doi.org/10.1111/j.1540-4560.1946.tb02295.x
- Pérez, G. (2014). *Investigación cualitativa. Retos e interrogantes. I. Métodos*. Madrid: Editorial La Muralla.
- Rial, A., Gómez, P., Braña, T., eta Varela, J. (2014). Actitudes, percepciones y uso de Internet y las redes sociales entre los adolescentes de la comunidad gallega (España). *Anales de Psicología*, 30, 642-655. doi: doi.org/10.6018/analesps.302159111